

EZ ATZO, EZ BIHAR...GAUR BIZI BEHAR

Doinua: "Begiak parrez parrez"

1

Ez atzo ta ez bihar,
guk gaur bizi behar;
gaur bizi ta be, egun bakotxak
badau nahiko behar.

2

Atzokoa gogoan
ta zer biharkoan...?
Bitartean ai! gaurko erbia
igesi nun doan.

3

Atzo hau izan banintz,
bihar haxe balitz...
Balitz ta bazan, gaur zeu galtzeko
arriskuan zabiltz.

4

Gaur bizi zorionez,
eskerrak emonez;
ta biharkoa prestauko dozu
egitada onez.

5

Atzoko pozgarriak
aurrean jarriak,
arindu beitez gaurko kezka ta
biharko larriak.

6

Atzo zan gure txanda
ha betiko joan da;
gaur beste batzuk heldu dira ta
ez sortu demanda.

7

Zein egunik onena?
-Gaurkoz datorrena.
Onartu eizu ta bizi zaitez
ahal dan ondoena.

8

Badaukazu nahikoa
gaur egitekoa,
gaur bizi zaitez eta gaur izan
zorionekoa.

9

Mundura etortea
hau da suertea!
Dagona dago, beste dana da
amets egitea.

10

Bizitzak dau itxura
dala abentura,
gaur hemen ahal dan ondoen bizi
ta gero zerura.

11

Ez dala ta badala
ni bizi nazala!
Urte askotan gure Jainkoak
lagundu naiala.

12

Hil ta bizi zan Kristo
bizi da betiko;
bizi izan naz, bizi naz eta
beti naz biziko.

A. Martzel